| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO ABENDUAREN 4AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 4 DE DICIEMBRE DE 2018.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Keltse Eiguren Alberdi And.
Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazortziko abenduaren lauan, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a cuatro de diciembre de dos mil dieciocho, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el

dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**482.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO AZAROAREN 27AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2018ko azaroaren 27ko bilerakoa, hain zuzen.

**482.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 27 DE NOVIEMBRE DE 2018.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 27 de noviembre de 2018.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**483.- ESKOLETAKO PLAZAN DAGOEN UDAL-LUDOTEKA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA HUTSIK GERATU DELA ADIERAZTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

AURREKARIAK
LEHENA.- Toki Gobernu Batzordeak 2018/09/11n egindako bilkuran hartutako 344. erabakiaren bidez baimendu zen PROZEDURA IREKI bidez GETXOKO (AREETA) ESKOLEN PLAZAN KOKATUTAKO UDAL LUDOTEKA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAren esleipenerako arauzko tramitazioa hastea; haren lizitazio aurrekontua (%10eko BEZ barne) 91.000 eurokoa zen (LAUROGEITA HAMAIKA MILA euro).
Lizitazio mota hau honako kontzeptu hauen arabera desglosatzen da:

**483.- DECLARAR DESIERTO EL PROCEDIMIENTO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE DINAMIZACIÓN DE LA LUDOKETA MUNICIPAL SITA EN LA PLAZA DE LAS ESCUELAS.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Por Acuerdo nº 344 de la Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada en fecha 11/09/2018 se autorizó el inicio de la tramitación reglamentaria por el PROCEDIMIENTO ABIERTO para la adjudicación del SERVICIO DE DINAMIZACIÓN DE LA LUDOTECA MUNICIPAL SITUADA EN LA PLAZA DE LAS ESCUELAS DE GETXO (LAS ARENAS), cuyo presupuesto de licitación, IVA del 10% incluido, era de 91.000€ (NOVENTA Y UN MIL euros).

- Ohiko zerbitzuengatik 85.000 euroko kopurua (LAUROGEITA BOST MILA EURO), %10eko BEZ barne. Kontzeptu honi dagokion eskaintza ekonomikoa prezio eta orduko aurkeztu beharko litzateke:

• Lizitazioaren gehieneko tipoa 26,12 euro orduko (HOGEITA SEI euro eta HAMABI zentimo orduko), betiere %10eko BEZa sartu gabe.

- Ezohiko zerbitzuengatik 1.500 euroko kopurua (MILA ETA BOSTEHUN EURO), %10eko BEZ barne. Lizitatzaileek ezin zuten zenbateko hori hobetu. Orduko prezioa honakoa da:

• Lizitazioaren gehieneko tipoa 32,50 euro orduko (HOGEITA HAMABI euro eta BERROGEITA HAMAR zentimo orduko), betiere %10eko BEZ barne.

- Jarduera osagarriengatik 4.500 euroko kopurua (LAU MILA ETA BOSTEHUN EURO), %10eko BEZ barne. Kontzeptu honen eskaintza ekonomikoa prezio unitarioen arabera aurkeztu behar zen, ekintza bakoitzeko:

• Kirol jarduerak (eskubaloia, boleibola…), bi monitorerekin bi (2) orduz: lizitazioaren gehieneko tipoa 227,27 euro (BERREHUN ETA HOGEITA ZAZPI euro eta HOGEITA ZAZPI zentimo), betiere %10eko BEZ sartu gabe.

• Ipuin kontalariak: lizitazioaren gehieneko tipoa 272,73 euro (BERREHUN ETA HOGEITA ZAZPI euro eta HIRUROGEITA HAMAHIRU zentimo), betiere %10eko BEZ sartu

El tipo de licitación quedaba desglosado en los siguientes conceptos:

- Por los servicios ordinarios la cantidad de 85.000€ (OCHENTA Y CINCO MIL euros), IVA del 10% incluido. La oferta económica correspondiente a este concepto debía presentarse por precio/hora:

• Tipo máximo de licitación de 26,12€/hora (VEINTISÉIS euros y DOCE céntimos/hora), 10% de IVA incluido.

- Por los servicios extraordinarios la cantidad de 1.500€ (MIL QUINIENTOS euros), IVA del 10% incluido. Esta cantidad NO podía ser mejorada por los licitadores. El precio/hora era el siguiente:

• Tipo máximo de licitación de 32,50€/hora (TREINTA Y DOS euros y CINCUENTA céntimos/hora), 10% de IVA incluido.

- Por las actividades complementarias la cantidad de 4.500€ (CUATRO MIL QUINIENTOS euros), IVA del 10% incluido. La oferta económica correspondiente a este concepto debía presentarse por los siguientes precios unitarios, que eran por evento:

• Actividades deportivas (balonmano, voleibol,…) con dos (2) monitores durante dos (2) horas: tipo máximo de licitación 227,27€ (DOSCIENTOS VEINTISIETE euros y VEINTISIETE céntimos), IVA del 10% excluido.

• Cuentacuentos: tipo máximo de licitación 272,73€ (DOSCIENTOS SETENTA Y DOS euros y SETENTA Y TRES céntimos), IVA del 10% excluido.

gabe.

- Antzerki saioak (txikiak): lizitazioaren gehieneko tipoa 272,73 euro (BERREHUN ETA HOGEITA ZAZPI euro eta HIRUROGEITA HAMAHIRU zentimo), betiere %10eko BEZ sartu gabe.

- Antzerki saioak (handiak): lizitazioaren gehieneko tipoa 454,55 euro (LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro eta BERROGEITA HAMABOST zentimo), betiere %10eko BEZ sartu gabe.

- Magia saioak: lizitazioaren gehieneko tipoa 454,55 euro (LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro eta BERROGEITA HAMABOST zentimo), betiere %10eko BEZ sartu gabe.

- Bestelakoak: zerrenda honetan sarturik ez dagoen beste jarduera bat aurrera eraman behar bada, haren prezioa modu kontradiktorioan egingo da enpresa adjudikaziodunarekin.

Kontratua gauzatzeko epea sinatzen zenetik 2019/08/31ra arte luzatzen zen. Kontratua ezin zen luzatu.
Kontratuaren balio aurreikusia 83.000 euroko zenbatekora iristen zen (LAUROGEITA HIRU MILA euro). Hau da, 82.727,27 euro (LAUROGEITA BI MILA ETA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI euro eta HOGEITA ZAZPI zentimo) gehi 272,73 euro (BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI euro eta HIRUROGEITA HAMAHIRU zentimo), lizitazioa erandutako pleguetan aurreikusitako aldarazpenei zegozkienak.

BIGARRENA.- 2018/09/12an lizitazio

- Funciones de teatro (pequeñas): tipo máximo de licitación 272,73€ (DOSCIENTOS SETENTA Y DOS euros y SETENTA Y TRES céntimos), IVA del 10% excluido.

- Funciones de teatro (grandes): tipo máximo de licitación 454,55€ (CUATROCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO euros y CINCUENTA Y CINCO céntimos), IVA del 10% excluido.

- Funciones de magia: tipo máximo de licitación 454,55€ (CUATROCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO euros y CINCUENTA Y CINCO céntimos), IVA del 10% excluido.

- Otros: en el caso en el que se dé la necesidad de realizar otra actividad que no esté incluida en este listado, el precio de la misma se establecerá de manera contradictoria con la empresa adjudicataria.

El plazo de ejecución del contrato se extendía desde su firma hasta el 31/08/2019. El contrato NO era susceptible de prórroga.
El valor estimado del contrato ascendía a la cuantía de 83.000€ (OCHENTA Y TRES MIL euros). Esto es, 82.727,27€ (OCHENTA Y DOS MIL SETECIENTOS VEINTISIETE euros y VEINTISIETE céntimos), más 272,73€ (DOSCIENTOS SETENTA Y DOS euros y SETENTA Y TRÉS céntimos), correspondientes a las modificaciones previstas en los Pliegos que rigieron la licitación.

SEGUNDO.- Con fecha 12/09/2018 se

iragarkia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratu zen. Halaber, Getxoko Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen.

publica el anuncio de licitación la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. También en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Getxo.

HIRUGARRENA.- Kontuan hartu beharra dago 2018/09/09an indarrean sartu zela Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.4.a) artikuluan prozedura ireki sinplifikaturako jasotako betebeharra eta haren arabera lizitazio honetan aurkezteko interesa duen enpresek Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribaturik egon behar dutela edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan; gauzak horrela, 2018/09/14an ohar bat argitaratu zen kontratatzailearen profilean, zirkunstantzia horren berri emanez lizitazio honetara aurkezteko interesa zutenei.

TERCERO.- Teniendo en cuenta que el día 09/09/2018 entró en vigor la obligación recogida para el Procedimiento Abierto Simplificado en el artículo 159.4.a) de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, según el cual las empresas interesadas en presentarse a esta licitación debían estar inscritas en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o, en este caso, en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en fecha 14/09/2018 se publicó una nota en el Perfil del Contratante advirtiendo de esta circunstancia a quienes pudieran resultar interesados en concurrir a esta licitación.

LAUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko epea amaituta, bi enpresak aurkeztu zuten proposamena.

CUARTO.- Finalizado el plazo de presentación de proposiciones dos empresas presentaron proposición.

BOSGARRENA.- 2015/10/05ean Kontratazio Mahaiak gutun-azal BAKARRA ireki zuen; bertan lizitazioari buruzko dokumentazioa jaso behar zen.

QUINTO.- El día 05/10/2015 se realizó por la Mesa de Contratación, la apertura del sobre ÚNICO, conteniendo la documentación relativa a esta licitación.

Aurkeztutako proposamenak zenbatu eta ireki ziren. Lizitaziora jarraian zerrendatzen diren enpresak aurkeztu ziren:

- KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.
- AISIBIZIA ELKARTEA.

Se procedió al recuento de las proposiciones presentadas y a la apertura de las mismas. Se presentaron a la licitación las empresas que se relacionan a continuación:

- KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.
- AISIBIZIA ELKARTEA.

Bi enpresen proposamenetan akatsak

Dado que se observa que en las

edo hutsuneak daudela ikusi zenez (DOKUMENTAZIO OROKORTZAT har zitekeen dokumentazioaren zatian), SPKLren 141. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz, 3 egunetik gorakoa izango ez zen epe bat ematea erabaki zen, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko.

proposiciones de ambas empresas existen defectos u omisiones relativas a la parte de la documentación que podría considerarse la DOCUMENTACIÓN GENERAL, de conformidad con lo recogido en el artículo 141 LCSP, se acuerda otorgarles un plazo no superior a 3 días para que corrijan o subsanen la documentación presentada.

SEIGARRENA.- BI enpresek aurkeztu zuten eskatutako dokumentazioa epean eta eraz.

SEXTO.- Ambas empresas presentan la documentación que se les requiere en plazo y forma.

ZAZPIGARRENA.- Kontratazio mahaiaren 2018/10/23ko bilkuran, mahaikideek dokumentazioa eta aurkeztutako eskaintzak aztertu zituzten eta, horiek ikusita, honako erabakiak hartu zituzten:

SÉPTIMO.- En sesión de la Mesa de Contratación de fecha 23/10/2018, los Miembros de la misma analizan la documentación y las ofertas presentadas y a la vista de las mismas adoptan las siguientes decisiones:

Azaldutakoan oinarrituz, kontratazio mahaia osatzen duten kideek prozedura honetatik baztertu dute B95113056 IFK duen KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U. sozietatea, betiere zerbitzua eraentzen duten administrazio baldintzen pleguaren laugarren klausularen arabera; izan ere, haren eskaintza ekonomikoak gainditzen ditu jarduera osagarrietarako finkatutako gehieneko prezio unitarioak.

En base a lo expuesto, los Miembros que integran la Mesa de Contratación excluyen de este procedimiento a la razón social KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U., con CIF B95113056, de acuerdo con la cláusula cuarta del pliego de Condiciones Administrativas que rigen este Servicio, puesto que su oferta económica rebasa los precios unitarios máximos fijados para las actividades complementarias.

Era berean, G95481735 IFK duen GETXOKO HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK GARATZEKO ETA SUSTATZEKO AISIBIZIA ELKARTEA izeneko sozietatea ere baztertzea erabaki da, ez baitu beharrezko egiaztagiririk edo inskripziorik aurkeztu Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa

Igualmente, se acuerda excluir a la razón social AISIBIZIA ELKARTEA PARA EL DESARROLLO Y PROMOCIÓN DE LA INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD DEL MUNICIPIO DE GETXO, con CIF G95481735, dado que no ha sido aportada la correspondiente certificación o inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o, en este caso, en el Registro de Licitadores y

Sailkatuen Erregistroan inskribaturik dagoela ziurtatzeko, betiere eskaintzak aurkezteko epearen barruan (aurkeztutako idatzian eskaera data gisa 2018/10/15a azaltzen da eta eskaintzak amaitzeko epea 2018/09/27a izan zen).

Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su caso, solicitud de inscripción dentro del plazo de presentación de ofertas (en el escrito presentado se señala como fecha de solicitud el 15/10/2018 y el plazo de finalización de ofertas fue el 27/09/2018).

Ondorioz, GETXOKO (AREETA) ESKOLEN PLAZAN KOKATUTAKO UDAL LUDOTEKA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAren prozedura hutsik uztea proposatzen da, Euskara Zerbitzuari horren berri emanez, beharrezko ondorioetarako.

En consecuencia se propone declarar desierto el procedimiento de SERVICIO DE DINAMIZACIÓN DE LA LUDOTECA MUNICIPAL SITUADA EN LA PLAZA DE LAS ESCUELAS DE GETXO (LAS ARENAS), dando cuenta al departamento de Euskera a los efectos oportunos.

Erabakia honako gertakari hauetan justifikatzen da:

Esta decisión se justifica en los siguientes hechos:

1) KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U. lizitatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarduera osagarriei dagozkien honako prezio unitarioak aurkezten ditu eta horiek administrazio baldintzen pleguaren “kontratuaren prezioa” izeneko 4. atalean zehaztutako prezio unitarioen gehieneko lizitazio tipoa gainditzen dute:

1) La licitadora KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U. presenta los siguientes precios unitarios relativos a las actividades complementarias en su oferta económica, que rebasan el tipo máximo de licitación de los precios unitarios señalados en el apartado 4, denominado “Precio del contrato”, del Pliego de Condiciones Administrativas:

- Kirol jarduerak (eskubaloia, boleibola…), bi monitorerekin bi (2) orduz: 1.250,00 euroko kopuruan (MILA ETA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO), gehi BEZaren %10ari dagozkion 125,00 euro (EHUN ETA HOGEITA BOST EURO).

- Actividades deportivas (balonmano, voleibol,…) con dos (2) monitores durante dos (2) horas: por la cantidad de 1.250,00 (MIL DOSCIENTOS CINCUENTA EUROS), más 125,00€ (CIENTO VEINTICINCO EUROS) correspondientes al 10% de IVA.

- Ipuin kontalariak: 975,00 euroko kopuruan (BEDERATZI EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST EURO), gehi BEZaren %10ari dagozkion 97,50 euro (LAUROGEITA HAMAZAZPI ETA BERROGEITA HAMAR EURO).

- Cuentacuentos: por la cantidad de 975,00€ (NOVECIENTOS SETENTA Y CINCO EUROS), más 97,50€ (NOVENTA Y SIETE EUROS CON CINCUENTA CÉNTIMOS) correspondientes al 10% de IVA.

- Antzerki saioak (txikiak): 545 euroko kopuruan (BOSTEHUN ETA BERROGEITA BOST EURO), gehi BEZaren %10ari dagozkion 54,50 euro (BERROGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO).

- Funciones de teatro (pequeñas): por la cantidad de 545,00€ (QUINIENTOS CUARENTA Y CINCO EUROS), más 54,50€ (CINCUENTA Y CUATRO EUROS CON CINCUENTA CÉNTIMOS) correspondientes al 10% de IVA.

- Antzerki saioak (handiak): 454 euroko kopuruan (LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO), gehi BEZaren %10ari dagozkion 45,40 euro (BERROGEITA BOST EURO ETA BERROGEI ZENTIMO).

- Funciones de teatro (grandes): por la cantidad de 454,00€ (CUATROCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO EUROS), más 45,40€ (CUARENTA Y CINCO EUROS CON CUARENTA CÉNTIMOS) correspondientes al 10% de IVA.

- Magia saioak: 800 euroko kopuruan (ZORTZIEHUN EURO), gehi BEZaren %10ari dagozkion 80,00 euro (LAUROGEI EURO).

- Funciones de magia: por la cantidad de 800,00€ (OCHOCIENTOS EUROS), más 80,00€ (OCHENTA EUROS) correspondientes al 10% de IVA.

2) AISIBIZIA ELKARTEA lizitatzaileak idatzi bat aurkeztu du Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan 2018/10/15ean egindako eskaera egiaztatzeko. GETXOKO (AREETA) ESKOLEN PLAZAN KOKATUTAKO UDAL LUDOTEKA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAren lizitaziora eskaintzak aurkezteko epea 2018/09/27an amaitu zen.

2) La licitadora AISIBIZIA ELKARTEA presenta un escrito para acreditar su solicitud en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadi con fecha de solicitud 15/10/2018. El plazo para la presentación de ofertas a la licitación del SERVICIO DE DINAMIZACIÓN DE LA LUDOTECA MUNICIPAL SITUADA EN LA PLAZA DE LAS ESCUELAS DE GETXO (LAS ARENAS) finalizó el 27/09/2018.

ZORTZIGARRENA.- Aurrekoa dela eta, ulertzen da lizitaziora aurkeztutako enpresa guztiek aurkeztutako eskaintzak baztertu behar direla.

OCTAVO.- Por lo anterior, se entiende que las ofertas presentadas por todas las empresas presentadas a la licitación deben quedar excluidas.

ZUZENBIDEAREN OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Legeria aplikagarria indarreko arautegiak ezarritakoa da:

I.- La legislación aplicable es la que determina la normativa siguiente:

- Sektore Publikoaren Kontratuei

- Ley 9/2017, de 8 de noviembre,

buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; haren bidez, Espainiako antolamendu juridikora eramaten dira Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko Zuzentarauak (2014/23/EB eta 2014/24/EB, SPKL).

de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (LCSP).

Zehatzago, prozedura ireki sinplifikatuari buruzko 159. artikuluak honakoa ezartzen du.

En concreto, el artículo 159, relativo al Procedimiento abierto simplificado, de la misma, que dice:

(…)

(…)

4. Prozeduraren tramitazioa honako espezialitate hauei lotuko zaie:

4. La tramitación del procedimiento se ajustará a las siguientes especialidades:

a) Prozedura sinplifikatu honen bidez egindako lizitazioetarako aurkeztutako lizitatzaile guztiek inskribaturik egon beharko dute Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo, autonomia erkidegoaren erregistro ofizialaren 96. artikuluaren 2. atalean ezarritakoarekin bat etorriz bidezkoa denean, Autonomia Erkidegoaren Erregistro Ofizialean, betiere eskaintzak aurkezteko amaierako datan, lehia mugatu ez bada.

a) Todos los licitadores que se presenten a las licitaciones realizadas a través de este procedimiento simplificado deberán estar inscritos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, o cuando proceda de conformidad con lo establecido en el apartado 2 del artículo 96 del Registro Oficial de la correspondiente Comunidad Autónoma, en la fecha final de presentación de ofertas siempre que no se vea limitada la concurrencia.

(…)

(…)

- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, betiere SPKLren aurka egiten ez duen guztian.

- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se opongan al LCSP.

- Administrazio Klausula Berezien Pleguan jasotako klausulak.

- Las cláusulas contenidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Zehatzago, “kontratuaren prezioa” izeneko 4. atala, beren-beregi honako hau ezartzen duena:

Concretamente, el apartado 4, denominado “Precio del contrato”, que establece expresamente lo siguiente:

ESKAINTZA EKONOMIKOETAN LIZITATZAILEEK KONTZEPTU GUZTIETARAKO FINKATUTAKO GEHIENEKO PREZIO UNITARIOAK ERRESPETATU BEHARKO DITUZTE ETA EZ DITUZTE GAINDITU BEHARKO. GEHIENEKO PREZIO UNITARIOETATIK EDOZEIN GAINDITUZ GERO, LIZITATZAILEA LIZITAZIOTIK BAZTERTUA IZANGO DA.

EN SUS OFERTAS ECONÓMICAS LOS LICITADORES DEBERÁN RESPETAR Y NO REBASAR LOS PRECIOS UNITARIOS MÁXIMOS FIJADOS PARA TODOS Y CADA UNO DE LOS CONCEPTOS. EN CASO DE REBASARSE CUALQUIERA DE LOS PRECIOS UNITARIOS MÁXIMOS EL LICITADOR SERÁ EXCLUIDO DE LA LICITACIÓN.

II.- Toki Gobernu Batzordea organo eskuduna da kontratazio espediente hau hutsik uzteko, bera izan baitzen hari hasiera eman ziona.

II.- La Junta de Gobierno Local es el órgano competente para declarar desierto este expediente de contratación, dado que fue el órgano que inició el mismo.

III.- Kasu honetan honako legeria aplikagarria da: Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 LEG bidez onartutako Testu Bategina eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, bai eta aplikagarria den eta loturik dagoen gainerako legeria ere.

III.- Es aplicable en el presente caso la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por RDL 781/1986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de aplicación; y la Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi y demás legislación conexa que resulte de aplicación.

Aurreko guztia dela eta, honako erabaki proposamena egin beharra dago.

En virtud de cuanto antecede, procede la formulación de la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA: KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U. lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza baztertzea, erreferentziazko zerbitzuaren jarduera osagarriak desglosatzen diren ekintza bakoitzerako finkatutako gehieneko prezio unitarioak gainditu dituelako eskaintza ekonomikoan.

PRIMERO: EXCLUIR la oferta presentada por la licitadora KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U., por haber rebasado en su oferta económica todos y cada uno de los precios unitarios máximos fijados para cada evento en los que se desglosan las actividades complementarias del servicio de referencia.

BIGARRENA.- AISIBIZIA ELKARTEA

SEGUNDO.- EXCLUIR la oferta

lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza baztertzea, Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo, hala egokituz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribaturik dagoela ez egiaztatzeagatik (edo gutxienez inskripzioa ez eskatzeagatik), betiere eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretik.

presentada por la licitadora AISIBIZIA ELKARTEA por no haber acreditado estar inscrita (o al menos, haber solicitado la inscripción) en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o, en este caso, en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadi antes de la finalización del plazo para la presentación de ofertas.

HIRUGARRENA.- Aurreko guztiaren ondorioz, GETXOKO (AREETA) ESKOLEN PLAZAN KOKATUTAKO UDAL LUDOTEKA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA esleitzeko PROZEDURA IREKIA HUTSIK UZTEA, eskaintza aurkeztutako enpresa lizitatzaile guztiak baztertuak izan baitira.

TERCERO.- Como consecuencia de lo anterior DECLARAR DESIERTO el PROCEDIMIENTO ABIERTO para la adjudicación del SERVICIO DE DINAMIZACIÓN DE LA LUDOTECA MUNICIPAL SITUADA EN LA PLAZA DE LAS ESCUELAS DE GETXO (LAS ARENAS) al haber quedado excluidas todas las empresas licitadoras que presentaron oferta al mismo.

**484.- UDALAREN UR- ETA SANEAMENDU-SAREAK MANTENTZEKO UDAL-LANTALDEEI LAGUNTZEKO KONTRATU MISTOAREN ALDAKETA ONESTEA.**

**484.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO MIXTO DE APOYO A LAS BRIGADAS MUNICIPALES EN EL MANTENIMIENTO DE LAS REDES DE AGUA Y SANEAMIENTO DE TITULARIDAD MUNICIPAL.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: UDALAREN UR SAREEN ETA SANEAMENDUAREN MANTENTZEAN UDAL LANTALDEEI BABESA EMATEKO KONTRATU MISTOA aldatzea onestea eta espedientea hastea baimentzea.

PRIMERO: Autorizar el inicio del expediente y aprobar la modificación del CONTRATO MIXTO DE APOYO A LAS BRIGADAS MUNICPALES EN EL MANTENIMIENTO DE LAS REDES DE AGUA Y SANEAMIENTO DE TITULARIDAD MUNICIPAL.

Kontratuari gelditzen zaion urte bakoitzerako adjudikatzeko gehieneko

La modificación consiste en la ampliación del importe máximo de

zenbatekoari 50.000 euro (BEZ barne) gehitzean datza aldaketak.

adjudicación en 50.000 euros, I.V.A incluido, para cada anualidad restante del contrato.

BIGARRENA: 41.322,31 euroko gastua baimentzea eta xedatzea, onetsitako aldaketari aurre egiteko.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto, por importe de 41.322,31 euros, para hacer frente a la modificación aprobada.

HIRUGARRENA: Erabaki hau adjudikaziodunari jakinaraztea, HAMABOST EGUNEKO epean, kontratuaren behin betiko bermea doitu dezan, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik hasita, 2.066,12 euro gehituta.

TERCERO: Notificar este acuerdo a la adjudicataria, a efectos de que en el plazo de QUINCE DIAS NATURALES, a partir del recibo de la notificación del mismo, proceda a reajustar la Garantía Definitiva, incrementándola en 2.066,12 euros.

LAUGARRENA: Proposatutako aldaketa administrazio agiri batean formalizatuko da, adjudikaziodunari ebazpen hau jakinarazi ondoko egunetik aurrera zenbatu behar den 15 asteguneko epearen barruan, horretarako deitzen dietenean, betiere aurreko atalean jasotako bermea birdoitu ondoren.

CUARTO: La modificación propuesta se formalizará en documento administrativo, dentro del plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación a la adjudicataria de la presente resolución, cuando sean llamados para ello y siempre previo el reajuste de la garantía recogido en el apartado anterior.

**485.- GARBIGUNE MUGIKORRA KUDEATZEKO ETA LAN-MUNDUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK SUSTATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.**

**485.- PRÓRROGA DEL CONTRATO DE SERVICIO DE GESTIÓN DEL PUNTO LIMPIO MÓVIL Y PROMOCIÓN DE COLECTIVOS CON DIFICULTADES PARA EL ACCESO AL MUNDO LABORAL.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: URTEBETEZ luzatzea, 2019-01-01etik 2019-12-31ra arte (bigarren eta azken luzapena), EMAÚS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES SLU enpresarekin (IFK: B-95308979) sinatutako kontratua GETXO

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO desde el 01/01/2019 al 31/12/2019 (segunda y última prórroga), la vigencia del contrato suscrito con la razón social “EMAÚS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.” con C.I.F. B-95308979 para el SERVICIO DE

UDALERRIAN GARBIGUNE MUGIKORRA KUDEATZEKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK SUSTATZEKO ZERBITZUA emateko URTEAN 35.353,95 euroren truke, % 10eko BEZa barne (32.139,95 euro gehi BEZaren % 10i dagozkion 3.214 euro).

BIGARRENA: Behar den gastua, hau da, 35.353,95.- euro, BEZaren % 10 barne (32.139,95 euro gehi BEZaren % 10ari dagozkion 3.214 euro), baimendu eta xedatuko da, kontratu hori luzatzetik datozen gastuei aurre egiteko. Halere, zerbitzu horren luzapenari aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoa egin ahal izateko, 2019. urterako onesten edo luzatzen den aurrekontuan benetan kontsignazioa egotearen mende dago, ABUAren 28.3 artikuluan ezarritako moduan.

GESTIÓN DEL PUNTO LIMPIO MÓVIL EN EL MUNICIPIO DE GETXO Y PROMOCIÓN DE COLECTIVOS CON DIFICULTADES PARA EL ACCESO AL MUNDO LABORAL, por un importe ANUAL de 35.353,95 euros, 10% de I.V.A. incluido (32.139,95 euros más 3.214 euros del 10% de I.V.A.).

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 35.353,95.-euros, 10% de I.V.A. incluido (32.139,95 euros más 3.214 euros del 10% de I.V.A.) para hacer frente a los gastos de prorrogar el contrato de referencia, si bien el crédito adecuado y suficiente para hacer frente a la prórroga de este servicio queda supeditado a la existencia efectiva de consignación en el presupuesto que se apruebe o prorrogue para el 2019, en los términos previsto en el artículo 28.3 de la NMEP.

**486.- SAN IGNAZIO PARKEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUAN JASOTAKO OBREN ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA ONESTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: Onestea 4. ziurtagiria (azkena) eta SAN IGNAZIO PARKEA BERRURBANIZATZEKO proiektuko obrei dagokien Obra Zuzendaritzak aurkeztutako 69.072,07 euroko zerrenda baloratua. Horiek EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO SLri (IFK: B-4868930) adjudikatu zitzaizkion 2018-04-24ko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako 183. erabakiaren bitartez.

**486.- APROBACIÓN DE LA CERTIFICACIÓN-LIQUIDACIÓN DE LAS OBRAS COMPRENDIDAS EN EL PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DEL PARQUE SAN IGNACIO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la 4ª certificación-final y relación valorada que por importe de 69.072,07 euros, presenta la Dirección de Obra correspondiente a las comprendidas en el proyecto de REURBANIZACIÓN DEL PARQUE SAN IGNACIO, las cuales fueron adjudicadas a empresa "EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L." con CIF: B-4868930, por

Hala, gastua udal aurrekontuaren kontura egingo da.

Acuerdo nº 183 adoptado por la Junta de Gobierno Local en sesión de fecha 24/04/2018, imputándose el gasto a cargo del Presupuesto Municipal.

Ez da beharrezkoa beste gastu bat baimentzea, ikusita aipatutako gehiegizkoa bere garaian gordetako eta baimendutako aurrekontuaren zenbatekoaren zatiarekin betetzen dela; eta hura ez zen erabili lizitazio zenbatekoaren eta adjudikazio zenbatekoaren arteko beheranzko aldeagatik.

No resulta necesario autorizar nuevo gasto dado que el exceso mencionado queda cubierto por la parte de la cuantía presupuestaria en su día reservada y autorizada y que no fue empleada debido a la diferencia a la baja entre el importe de licitación y el importe de adjudicación.

BIGARRENA: Gehiegizko aurrekontua onartzea (9.373,81 euro), gehiegizko neurketa batetik sortutakoa, eta zenbateko bereko gastua xedatzea.

SEGUNDO: Aprobar el exceso de presupuesto, cifrado en 9.373,81 euros, y disponer el gasto por igual importe, derivado de un exceso de medición.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**487.- PORTU ZAHARRARI 2017RAKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA GUTXITZEKO ETA ORDAINTZEKE DAGOEN ZENBATEKOA ORDAINTZEA.**

**487.- MINORACIÓN DE LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA 2017 A PORTU ZAHARRA Y PAGO DEL IMPORTE PENDIENTE.**

Kultura, Euskara eta Gazteria Arloko zinegotziak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal del Área de Cultura, Euskera y Juventud, se acordó:

1.- 2017ko urriaren 3ko Toki Gobernu Batzordearen 409 zenbakidun Akordioaren bidez, Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari emandako 70.000 euroko diru-laguntza gutxitzea, 1.418,34 eurotan, diru-laguntza egokia 68.581,66 eurokoa delarik.

1.- Minorar la subvención de 70.000 euros concedida mediante Acuerdo número 409 de la Junta de Gobierno Local de 3 de octubre de 2017 a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" en 1.418,34 euros, siendo la subvención correcta a su favor de 68.581,66 euros.

2.- 5.581,66 euro ordaintzeko beharra onartzea Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra"

2.- Reconocer la obligación de pago por importe de 5.581,66 euros a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo

elkarteari (IFZ G95698700) diru-laguntzaren bigarren ordainketari dagokiona.

Ordainketa onuradunaren izeneko kontu honetan egingo da: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700 correspondiente al segundo pago del importe de la subvención.

El ingreso se realizará en la cuenta de la entidad beneficiaria: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

**488.- PORTU ZAHARRARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEA.**

**488.- CONCESIÓN SUBVENCIÓN NOMINATIVA A PORTU ZAHARRA.**

Kultura, Euskara eta Gazteria Arloko zinegotziak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal del Área de Cultura, Euskera y Juventud, se acordó:

1.- 70.000 euroko izendun diru-laguntza ematea Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari, IFZ G95698700, elkartearen funtzionamendu gastuak, eta Portu Zaharreko eraikinek dauzkaten termitak kentzeko lanen mantenimendua eta eraikin batzuen fatxaden saneamendu eta pintura lanak finantzatzeko.

1.- Conceder subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700, por importe de 70.000 euros para sufragar los gastos derivados del funcionamiento de la Entidad, así como de la ejecución del mantenimiento del tratamiento de eliminación de las termitas que afectan a los edificios del Puerto Viejo y de las obras de saneado y pintura de las fachadas en determinados edificios.

2.- Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkartearen aldeko izendun diru-laguntza arautzen duen hitzarmena onartzea, bere arrazoiko espedientearen barruan dagoena, eta Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

2.- Aprobar el Convenio regulador de la subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", que obra en el expediente de su razón, y facultar al Alcalde para su firma.

3.- 70.000euroko gastua baimentzea eta xedatzea izendun diru-laguntzatan Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari (IFZ G95698700) emateko.

3.- Autorizar y disponer el gasto por importe de 70.000 euros en concepto de subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700.

4.- 63.000 euro ordaintzeko beharra

4.- Reconocer la obligación de pago por

onartzea Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari (IFZ G95698700) %90ko lehen ordainketari dagokiona.

importe de 63.000 euros a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700 correspondiente al primer pago del 90%.

Ordainketa onuradunaren izeneko kontu honetan egingo da: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

El ingreso se realizará en la cuenta de la entidad beneficiaria: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

5.- Akordio hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari eta Udal kontuhartzailetzari jakinaraziko zaie.

5.-Publicar el presente Acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, notificar a la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" y comunicar a la Intervención Municipal.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, Y MEDIO AMBIENTE**

**489.- LUZAPENA EMATEA, TALAIETA KALEKO 2 ETA 4KO, BAJADA DE ARRIGUNAGA KALEKO 16KO, ETA BENTURILLENA KALEKO 3KO ERAIKINETAKO FATXADAK, KANPOALDEKOAK ETA BARRUALDEKOAK, ESTALKIAK, SOLAIRUAK ETA GARAJEETAKO SARRERAKO ARRAPALAK BIRMOLDATZEKO LANAK AMAITZEKO.**

**489.- CONCESIÓN DE PRÓRROGA PARA LA FINALIZACIÓN DE LAS OBRAS EN LAS FACHADAS EXTERIORES, FACHADAS DE PATIOS INTERIORES, CUBIERTAS Y FORJADOS, RAMPAS PARA MEJORA DE ACCESIBILIDAD PARA ACCESO A LOS GARAJES, EN LOS INMUEBLES SITOS EN LAS CALLES TALAIETA, 2 Y 4; BAJADA DE ARRIGUNAGA, 16 Y BENTURILLENA, 3.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- GRUPO TALAIETAKO jabeen erkidegoaren ordezkaritzan diharduen IÑAKI DE LA TORRE URRECHUA jaunari BI (2) HILABETEKO luzapena ematea Algortako Talaieta kaleko 2. eta 4. zenbakietako, Arrigunagako jaispideko

PRIMERO.- Conceder a D. IÑAKI DE LA TORRE URRECHUA en representación del CCPP GRUPO TALAIETA, una prórroga por espacio de DOS (2) MESES para finalizar las obras y presentar la documentación final de las obras de implantación de un

16. zenbakiko eta Benturillena kaleko 3. zenbakiko higiezinetako obrak bukatzeko, baita obren azken dokumentazioa aurkezteko ere. Obrak honako hauek dira: inguratzaile berria jartzea kanpoko fatxada guztietan, barruko patioetako fatxadetan, estalkietan eta hegaletako forjatu ireki zein itxietan; garajeetarako irispidea hobetzeko arrapalak egitea; eta suteen aurkako babes sistema osoa jartzea. Horretarako obra lizentzia Tokiko Gobernu Batzarraren 2017ko ekainaren 6ko 252. Erabakiaren bidez eman zen.

nueva envolvente en todas las fachadas exteriores, en fachada de patio interiores, cubiertas y forjados de vuelos abiertos y cerrados, realización de rampas para mejorar la accesibilidad para el acceso a los garajes y un sistema completo de protección contra incendios en los inmuebles sitos en la calle Talaieta 2 y 4, Bajada de Arrigunaga 16 y Benturillena 3, de Algorta, cuya licencia de obras fue concedida por Acuerdo nº 252 de la Junta de Gobierno Local de fecha 6 de junio de 2017.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraziko zaio, eta egokiak diren errekurtsoak adieraziko zaizkio.

SEGUNDO.- Notificar este acuerdo al interesado con indicación de los recursos procedentes.

HIRUGARRENA.- Honako hau Ekonomia Arloari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

TERCERA.- Dar traslado del presente al Área económica a los efectos oportunos.

**490.- LUZAPENA EMATEA, EUSKAL HERRIA KALEKO 26KO ERAIKINEKO FATXADAK KONPONTZEKO OBRA BUKATZEKO.**

**490.- CONCESIÓN DE PRÓRROGA PARA LA FINALIZACIÓN DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DE LAS FACHADAS DEL INMUEBLE SITO EN LA C/EUSKALHERRIA, 26.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- EUSKAL HERRIA kaleko 26. zenbakiko jabeen erkidegoaren ordezkaritzan diharduen EUGENIO DE LA TORRE SÁNCHEZ-RAMADE jaunari BI (2) HILABETEKO luzapena emango zaio, obrak amaitzeko eta obra amaierako dokumentazioa aurkezteko, Getxoko Euskal Herria kaleko 26. zenbakiko higiezineko fatxadak birgaitzeko obrak direla eta. Obra horiek egiteko baimena

PRIMERO.- Conceder a D. EUGENIO DE LA TORRE SÁNCHEZ-RAMADE en representación de la CCPP EUSKAL HERRIA 26 una prórroga por espacio de DOS (2) MESES para finalizar las obras y presentar la documentación final de las obras de rehabilitación de las fachadas del inmueble sito en la calle Euskal Herria nº 26, de Getxo, cuya licencia obras fue concedida por Acuerdo nº 134 de la Junta de Gobierno

Tokiko Gobernu Batzarraren 2017ko martxoaren 28ko 134. Erabakiaren bidez eman zitzaion.

Local con fecha 28 de marzo de 2017.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraziko zaio, eta egokiak diren errekurtsoak adieraziko zaizkio.

SEGUNDO.- Notificar este acuerdo al interesado con indicación de los recursos procedentes.

HIRUGARRENA.- Honako hau Ekonomia Arloari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

TERCERA.- Dar traslado del presente al Área económica a los efectos oportunos.

**491.- BASAGOITI ETORBIDEKO 87. ZENBAKIAN DAGOEN HIGIEZINAREN FATXADA ERABERRITU ETA ESTALKIA BIRGAITZEKO OBRAK DIRELA-ETA, JABETZA PRIBATUAN ALDAMIOAK JARTZEKO BAIMENA EMATEA.**

**491.- AUTORIZACIÓN PARA LA COLOCACIÓN DE ANDAMIAJE EN PROPIEDAD PRIVADA CON MOTIVO DE LA OBRA DE REHABILITACIÓN DE CUBIERTA Y REFORMA DE FACHADA EN EL INMUEBLE SITO EN LA AVDA. BASAGOITI, 87.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- Gorka Saitua Usallan jaunari baimena ematea jabetza pribatuan aldamioak jartzeko, Getxoko Basagoiti etorbideko 87. zenbakiko higiezinean SATE teknikaren bidez fatxada berriztatzeko eta estalkia birgaitzeko obrak direla eta. Hala, zehatz bete behar du aurkeztutako aldamioen proiektua, Esteban Morte Barrio arkitekto tekniko jaunak idatzia eta Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak 2018ko irailaren 12an ikus-onetsia.

PRIMERO.- Conceder a D. Gorka Saitua Usallan autorización para la colocación de andamiaje en propiedad privada, con motivo de las obras de rehabilitación de cubierta y reforma de fachada mediante la técnica SATE en el inmueble sito en la Avenida Basagoiti nº 87 de Getxo, debiendo ajustarse al proyecto de Andamiaje presentado, redactado por el Arquitecto técnico D. Esteban Morte Barrio, visado por el COAATBI con fecha 12 de septiembre de 2018.

- Aldamioekin okupazioa 12 hilabetez egingo da, eta bide pribatuan 40 m2 okupatuko dira, gutxi gorabehera.

-La ocupación de los andamios será por espacio de 12 meses, ocupando en vía privada 40 m2 aproximadamente.

-Inola ere ez da oinezkoentzako

-El paso de peatones en ningún

pasabidea etengo. Une oro bermatu beharko da oinezkoak pasa daitezkeela, 68/2000 Dekretuari Irisgarritasunari buruzkoari, jarraituz.

momento quedará interrumpido. En todo momento se deberá de garantizar el paso de peatones de acuerdo el Decreto 68/2000 de Accesibilidad.

- Gunea garbi egon beharko da uneoro.

-La zona deberá permanecer siempre limpia.

- Aldamioa jartzeak ez die inola ere eragingo udal zerbitzuen kutxatilei; une oro libre egon beharko dira.

-La instalación del andamio, no afectará en ningún caso a arquetas de servicios municipales debiendo estar, estas libres en todo momento.

- Haien behealdea behar bezala seinaleztatu beharko da, eremuko erabiltzaileek ondo ikus dezaten.

-Se deberá señalizar la parte baja de estos adecuadamente para que sea visualizada por los usuarios de la zona.

- Lanak amaitutakoan, dena kendu eta jatorrizko egoeran utziko da berriro.

-Terminados los trabajos se procederá a retirar y a recolocar todo como en su estado originario.

- Obrak hasi baino lehen honako dokumentazioa aurkeztu behar du:

-Antes de comenzar las obras se deberá presentar la siguiente documentación:

Behin aldamioa jarrita, aldamioen ziurtagiria aurkeztu beharko du, tekniko eskudun batek sinatutakoa.

Una vez colocado el andamio, certificado de andamiaje firmado por un técnico competente.

BIGARRENA.- Halaber, gogorarazten zaio obrak bukatzean lehen erabilerako lizentzia eskatu beharko duela. Horretarako, arestian aipatutako obra lizentzia emateko erabakian adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar du.

SEGUNDO.- Se le recuerda, asimismo, que al finalizar las obras, deberá solicitar Licencia de primera utilización, aportando la documentación indicada en el Acuerdo de concesión de licencia de obras anteriormente referido.

HIRUGARRENA. Ebazpen honen berri emango zaio eskatzaileari, behar diren ondorioak izan ditzan.

TERCERO. Dar traslado de la presente resolución al solicitante, a los efectos oportunos.

**492.- MANUEL SMITH KALEKO 1. ZENBAKIAN ZEGOEN ERAIKINA ERAISTEKO EGINDAKO OBRAK ONTZAT EMATEA.**

**492.- CONCESIÓN DEL VISTO BUENO A LOS TRABAJOS DE DERRIBO DE LA EDIFICACIÓN QUE EXISTÍA EN EL Nº 1 DE LA C/MANUEL SMITH.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

